

# BALEIKE

235. ZENBAKIA. EURO BAT  
2014ko IRAILA

[www.baleike.com](http://www.baleike.com)



## ZESTA PUNTA MIAMIKO BISITARIAK

ERREPORTAJEA: BIG BOY, ELEFANTEAREN ORROAK MUSIKA BIHURTUTA



**IRAILA**



Ordaindu  
**12** hilabetean  
interesik  
gabe!



**ENDAÑETA ZUMAIA**  
**ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694  
[www.endanetazumaia.com](http://www.endanetazumaia.com)

# BALEIKE 235

A. Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi eta  
Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietea, Izaskun Urbietea eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Bizikletaren ikurra:

Icon made by <http://www.freepik.com>

Creative Commons BY 3.0

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**TOKIKOM**

8

baleike +

## BIG BOY: ELEFANTEAREN ORROAK MUSIKA BIHURTUTA

4

hitz-tantak  
JOSE MARI AZKUE

18

erreportajea  
"ESTATU BATUETAN  
KASINOAK DIRA ZESTA  
PUNTAREN HELDULEKU  
BAKARRA"

30

bertso xorta  
XABIER AZKUE  
IBARBIA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiko Udala





# “Musika klasikoaren arazo nagusia da bertako musikariek ez dakigula saltzen”

Eskusoinuarekin hasi bazen ere, oboea jotzen du gaur egun. Zumaiaiko Udal Musika Bandan hasi zuen ibilbidea, Baionan eta Londresen ikasketak burutu ditu, eta uda honetan musika barroko kontzertua eman zuen Lux in Tenebris boskotearekin.

TESTUA: IZASKUN URBIETA  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA  
ETA ALAITZ OSA

Musikaria afizioz eta ofizioz, Ubillos jauregiko bere txokoa harrapatu dugu Jose Mari Azkue oboea jotzen. Musikaren adarrak ezustean harrapatu bazuen ere, orain ezin du bizitza musikaririk gabe ulertu. Udako musika jaialdian, Lux in Tenebris taldearekin debuta egin zuen herrian bertan. “Musika barrokoa egiten dugun talde bat gara”, kontatu du. Frantzian, Ingalaterran, Italian, Maltaan eta beste hainbat tokitan ikasi eta lan egindakoa dugu Azkue. Bere bizitzako pentagrametako puntuak, klabeak eta isiluneak ezagutzeko ueña iritsi da. Euskal Herrian oboe barrokoa jotzen duen musikari bakarrenetakoa izanik, *patxangeoa* gustatzen zaiola ere aitortu du.

**Musika klasikoa ez omen da erakargarria jende askorentzat. Non dago arazoa?**



Jendeak musika klasikoaren inguruan oso ideia desegokia du. Baina gero, kontzertu bat entzuterako joaten dira eta gustatzen zaie. Musika klasikoaren arazo nagusia da bertako musikariek ez dakigula saltzen.

**Nola hasi zinen musikaren munduan?**  
Sonsolesekin [Curielekin] hasi nintzen musika ikasten. Garai hartan, bere etxean

ematen zituen klaseak eta eskusoinua jotzen hasi nintzen. Gero, aspertu eta 14 bat urterekin utzi egin nuen. Baina 16 urterekin Tapiak deitu zidan, orduko bandako zuzendariak, eta ea oboea jotzen ikasiko nuen galdetu zidan. Bandarako behar zuela norbait. Zumaian instrumentu hori jotzen zuen mutil bat bazegoen. Harengana eraman ninduten ikusteko zer zen, eta, beno, handik Donostiara joaten hasi nintzen, ikastera.

**Handik abiatuta, ikasketak ere musikara zuzenduak egin zenituen?**  
Bai, hala da. Donostiatik, Trintxerpera joan nintzen eta han maisu batekin aritu nintzen ikasten, erdi mailako gradua ateratzen ari nintzen bitartean. Ondoren, berriro ere Donostiara joan nintzen, kontserbatoriora, musikako goi mailako gradua ateratzera. Hori amaitutakoan, Baionara

joan nintzen, Conservatoire National de Région Bayonne Cote Basquera, oboeko ikasketekin jarraitzera. Han bost urte eman nituen, eta ikasketak bukatzean, oboeko urrezko domina lortu nuen. Nahikoa ez, eta Londresra joan nintzen.

**Nolatan joan zinen Ingalaterrara?**

Garai hartan Euskal Herriko Gazte Orkestran jotzen nuen eta hango partaide batek Londresko kontserbatorio baten ospez hitz egin zidan. Galtzekorik ezer ere ez nuela pentsatu eta eskola hartako probetara aurkeztu nintzen. Guztira, hogeitik gora pertsona aurkeztu ginen 2 plaza lortzeko. Guildhall School of Music and Drama eta Royal Academy of Music eskoletan egin nituen probak. Bietan hartu ninduten, eta azkenean aukeratu egin behar izan nuen.

## BARROKOA

2014ko Musika  
Jaialdiaren baitan Lux  
in Tenebris boskoteak  
kontzertua eskaini  
zuen kandelek  
argizatutako  
komentuan.



### Guildhalleko eskolan aukeratu zenuen.

Bai. Nik irakasle jakin baten klaseak hartu nahi nituen, eta han ematen zituen klaseak, eta, beraz, hura aukeratu nuen. Royal Academy oso fama ona dauka eta oso ongi estrukturatuta dago. Baina Guildhallen dauden irakasleak, niretzat, behintzat, ezin dira konparatu. Gainera, Londresko Orkestra Sinfonikoarekin kontaktu handia dute, eta haien entseguak ikustera eramaten gintuzten, haiekin lan egiteko aukera ere bazegoen...

### Urtebeteko ikasketak izan ziren.

Berez bai, baina azkenean bi urtez ibili nintzen ikasten. Ikasketak oso garestiak dira, eta lehendabiziko urtean eskolarengatik beka jaso nuen, gurasoen laguntza izateaz gain, jakina. Eskolak matrikularen erdia ordaindu

zidan, eta hurrengo urtean, Gipuzkoako Diputazioak bertan ikasten jarraitzeko diru laguntza eman zidan. Horregatik, urtebete gehiago egin nuen bertan. Hala ere, tartean beste hainbat lan egin nituen: zerbitzari, Zara denda batean saltzaile...

### Baina Londresko egonaldia luzatu egin zenuen.

Ikasketak amaitu ondoren, beste sei urtez egon nintzen han, lanean. Urtebetez, Southbank Sinfonia orkestrarekin egon nintzen lanean, eta handik aurrera, gainerako urteetan, *freelance* modura ibili nintzen.

### Nolako esperientzia izan zen Southbank Sinfonia orkestran lan egitea?

Egia esan, zoramena izan zen. Astean hiru bat kontzertu ematen genituen, eta hori, orkestra batentzat, kopuru handia da. Hilabetean ez ginen

“Londresen beste hainbat lan egin nituen: zerbitzari, Zara denda batean saltzaile...”

15 kontzertutatik jaisten! Gainera, Erresuma Batua guztian zehar ibiltzen ginen, batetik bestera. Toki askotan eman genituen kontzertuak.

### Non, esaterako?

Behin Eskoziara joan ginen disko bat grabatzera. Ez nekien oso ondo nora gindoazen eta bat-batean, zibilizaziotik aterata, urrutiko toki batera eraman gintuzten. Baserri moduko bat zen, izugarri handia eta

bertan kristalera handi bat zegoen, eta bertatik itsasoa eta mendiak ikusten ziren. Izugarrizko bistak. Eta, noski, barruan, izugarrizko musika estudio bat zegoen. Handik musika klasikoko musikari handienak pasa dira.

Beste behin, berriz, Ingalaterrako gorteari kontzertua eman genion, St. James Palacen. Baina bereziena, beharbada, Londresko metroan atentatuak gertatu zireneko ondorengo kontzertua izan zen. Requiem bat jotzeko deituta geunden hurrengo egunean, baina bezperan atentatuak pasa ondoren, Ingalaterra osoa shock egoeran egonda, kontzertu berezia izan zen.

### Ondoren, *freelance* modura ibili zinen. Zer moduzko esperientzia?

Nahikoa gogorra. Azkenean, autonomo bezala egiten duzu lan, eta ez dakizu hurrengo egunean

non esnatuko zaren ere. Horrela 5 urte egin nituen. Bi eskoletan ematen nituen klaseak, St Dunstans Collegen eta London University Collegen. Hango curriculumean musika klaseei garrantzi handia ematen diete. Orduan, astean ordu batzuetan oboea erakustera joaten nintzen eskola horietara. Lan hori segurua nuen, eta *freelance* lanarekin oso ondo bateratzen nuen, baina Londresen bizitzea garestia da, eta beste lantxo batzuk egin behar ziren: estudio grabaketak, klase partikularrak, etab. Gainera, hiriburu kaotikoa da eta han bizitzen ere ikasi egin behar duzu.

**Kultura musikal handia dago, beraz.**

Bai. Txiki-txikitatik hasi eta institutura arte, derrigorrezko irakasgaia dute musika. Gainera, eskoletan koruak dituzte, orkestrak, bandak, musika taldeak, kontzertuak ematen dituzte... Orkestran jotzen ibili

nintzenezan, larunbatero umeentzako kontzertuak ematen genituen, eta beti goraino beteta egoten zen antzokia. Europa mailan, asko zabaldua dagoen arloa da musikarena. Hemen, berriz, alderdi horretatik, atzeratuta gaude.

**Londresen, beraz, errazagoa da musikatik bizitzea?**

Bai, askoz ere errazagoa. Aukera zabalagoa da, nahiz eta izugarritzko kompetentzia egon. Audizioen munduan, esaterako, sineztezina. Orkestra batean jotzeko, postu baterako, jendetza aurkezten da, eta, gainera, askotan, postua aurretik emanda egoten da. Egia da Ingalaterran ez dela hainbeste gertatzen, baina Europa mailan bai. Orain, adibidez, audizioak gortinaren atzean egiten dira, nor jotzen ari den ez ikusteko.

**Gero oboe barrokorako jautzia eman zenuen.**

Bai, eta orain horretan ari naiz buru-belarri.

Londresen ikasten ari nintzenezan, bigarren instrumentu bezala aukeratu nuen, eta asko gustatu zitzaidan. Orain ere, hilean behin, Lisboara joaten naiz Pedro Castro izeneko irakaslearekin perfekzionatzen jarraitzera.

**Zer da, baina, oboea?**

Haizezko instrumentu bat da, eta itxura konikoa du. Grenadillo izeneko materialaz dago egina, ebano egurraren mota batez. Beste haize instrumentuez ezberdintzen

“Europa mailan asko zabaldua dagoen arloa da musikarena. Hemen, berriz, atzeratuta gaude”

duena da erabiltzen dugun ahokoa. Guk, musikariok, kaña deitzen diogu, eta oboistok, geuk, fabrikatzen ditugu. Izatez, oboea berez bakarra da, baina sortu zenetik eboluzionatzen joan da, itxuraldatzen. Nik bi ditut, XVIII. mendeko oboe baten kopia zehatz bat, barrokoa, eta gaur egungoa.

**Baina ez dira berdin jotzen oboe barrokoa eta gaur egungoa.**

Gaur egungoa jotzeko, partituran jartzen duena irakurtzearekin nahikoa da teknikoki. Baina oboe barrokoak zerbait gehiago eskatzen ditu. Partituran idazten ez ziren gauza asko egiten ziren. Baina horiek ez ziren idazten garai hartan jakineko gauzak zirelako: artikulazioa, ornamentazioa, etab. Partituran jartzen duenaz gain, garai hartan nola jotzen zuten jakin behar da, interpretatzen.

**Lux in Tenebris taldea sortu berri duzu.**

Musika barrokoa jotzen dugu, eta, horretarako, instrumentu barrokoak erabiltzen ditugu. Izan ere, oboe barrokoak ateratzen duen soinua edo gaur egungo oboeak ateratzen duena oso ezberdina da. Adibidez, oboe barrokoarekin ezin da gaur egungo errepertorioa jo; beno, berez ahal da, baina oso arraro geratzen da. Hori bai: gaur egungo oboearekin beti jotzea dago antzinako errepertorioa, baina bestearekin lortzen ziren emaitzekin konparatuta, oso ezberdinak lortzen dira.

**Nondik dator taldearen izena?**







Tetrikoa dirudien arren, guztiz kontrakoa da. Charles Burney izeneko barrokoko kronista baten aipu batetik dator. Hark zihoen musika zela, hainbeste gerra eta gatazka artean, argia islatzen zuen artea. Bertolt Brechten liburu batek ere izen bera du, esaterako. Eta anekdota moduan, 2015ean estreinatuko den Hollywoodeko pelikula batek izen bera duela enteratu naiz!

#### **Nork osatzen duzue taldea?**

Guztira bost gara: Abenauara Graffigna, sopranoa; Leonor de Lera, biolin barrokoa; Loreto Aramendi, klabezina; Alejandro Marias, txelo barrokoa eta zango biola; eta ni neu, oboe barrokoarekin.

#### **Euskal Herrian ba al dago horrelako beste talderik?**

Gutaz aparte, beste bi talde nagusi daude: La Ritirata (Josetxo Obregon musikariarena; euskalduna da, baina ez da hemen bizi), eta Euskal Barrokensemble, Enrique Solinisen taldea.

#### **Momentu ona da talde bat sortzeko?**

Egia esan, ez da momentu ona. Festibal guztiak subentzionatuta daude, eta murrizketak hor daude. Hala ere, Zumaian zorteko gaude. Musika jaialdiak aurrera jarraitzen du, eta neurri handi batean Udaletik lan oso ona egiten dutelako. Gainera, etortzen diren taldeak oso onak izaten dira.

#### **Baina hemengo publikoak estimatzen du?**

Nik uste ez duela nahikoa

### “Musika klasikoa soilik erlaxatzeko entzuten dut”

baloratzen atzean dagoen lana. Ni ez naiz kexatuko; izan ere, gure kontzertuan jende asko izan zen eta gustura atera zirela esan didate. Baina egia da musika kontenporaneoak jotzen duen talde batek, esaterako, publikoa erakartzea zaila duela. Baina hori berdin gertatzen da Zumaian edo Donostiako Musika Hamabostaldian. Hala ere, Zumaia

jaialdira jende asko etorri da aurten ere, eta pozteko arrazoa da.

#### **Gaur egun, Zumaiaiko bandan jotzen duzu, eta Musika Eskolan ere irakasle zara.**

Bai, hala da. Bandan oraingoz bakarra naiz oboea jotzen, baina ikasle modura hiru gazte ditut. Horretaz gain, oboe barrokoko bi ikasle ditut. Euskal Herri guztian ez du inork erakusten instrumentu hori, nik bakarrik ematen ditut klaseak.

#### **Amaitzeko, zer musika estilo entzuten du Jose Mari Azkuek?**

Denetarik entzuten dut, egia esan. Baina aitortu behar dut musika klasikoa soilik erlaxatzeko entzuten dudala. (Barrez) Oso *patxangeo-zalea* naiz. ■

# BIG BOY

## ELEFANTEAREN ORROAK

Bi urteko bizitza besterik ez badu ere, musika talde honen bizipenek Guinness liburuan kapitulu bat izateko nahikoa merezimendu eskaintzen dute: gerra batean parte hartu eta galdu, abeslaria hil

eta berpiztu, mundu osoko *hit parade* guztietara heldu zen single bat grabatu eta Yasser Arafaten aurrean jo. Hona hemen Big Boy, panekak dantzak jartzen dituen talde bakarra.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
ARGAZKIAK: PEIO ROMATET ETA BIG BOY





# MUSIKA BIHURTUTA

BALEIKE +



Thailandiatik ekarri berria duten elefantea daraman zuri-bel-tzeko zirko zaharkitua Dylanen *Highway 61*en galduta dabil. “Vamos, chicas, salgan a bailar”, dio putetxeko madamak eta azokan erositako barruko arropa koloretsuak jantzi berri dituzten neskatilek begirada lizunak eskaintzen dizkiete goizgoizetik hurreratu diren bezeroei. Hardcore taldeko abeslariak “Dena gezurra da!” oihukatzen du *loop* amaigabe batean Ennio Morriconek zuzendutako udal musika bandak ezarritako erritmo bortitza ezin jarraituta. Hau idazten duenari halako irudiak etortzen zaizkio burura Big Boy taldearen lehen diskoa (+DVDa) entzunda. Mikel Laboa eta Fellini; Goran Bregovic eta Calexico; zirko zaharkituak eta elizako sermoiak; Parisko hipodromoak eta Azpeitirako bidaia azkarrak bigarren eskuko Audietan; Arizonako desertuak, Balkanak eta Artadiko mendia. Horrek guztiak eta gehiagok egiten dute bat Zumaiako eta, zergatik ez, euskal musika panoramako *rara avis* bat den musika talde honetan.

Jon Garcia abeslari eta gitarra jotzaileak Artadin duen Gartxi Estudioan eman zituen lehen pausoak taldeak 2012. urtean. Jon eta anaia Iñigoren (tronboijolea, abeslaria eta le-tren egilea) proiektua hasieran, denborarekin lagun/musikariak gehitzen joan zaizkio egungo seikotea osatu arte. Iñigok Goiko plazan duen arkitektura estudioan elkartu gara abuztuko bazkalondo euritsu batean. Bertan dira Garcia anaiak, Iker Hazas (bonbardinoa) eta Uhin Loiola (bateria). Beste bi partaideak, Jose Luis *Txipi* Barredo, (klarinetea, teklatuak, etab.) eta Harkaitz Bastarrika (baxua eta gitarra), ezin izan

dira agertu. Iñigo eta Jon dira taldearen sortzaileak eta hori nabari da elkarrizketan zehar; beraien hartzen dute hitza ia uneoro. Umorea, surrealista batzuetan, gris iluna edo beltza beste askotan, ez da falta. “Ska musika ez dugu inoiz joko. Ez zait ska gustatzen. Hala ere, *euska* (eusko ska) talde bat osatuko dugu eta horren arrakastarekin Big Boy finantzatu dugu”, dio Jonek beste kideen barre artean. Mahai baten bueltan kafea hartzen hasi den elkarrizketak ordenagailuaren aurrean amaitu du Gemeliers bikotearen *Prefiero decírtelo así* kantaren bideoklipa ikusten. “Ez ezak galdu hau. Hurrengo kontzertua honekin bukatuko diagu!”.

Uztailaren 26an eskaini zuen taldeak diskoaren aurkezpen kontzertua Mari kalean. Emanaldi berezia izan zen; izan ere, taldearen historia, nolabait esateagatik, kontatzen duen dokumentala ere erakutsi baitzuten. Urtebeteko lana eskatu du proiektuak eta orain jendaurrean erakusteko prest dira. CD eta DVD bana biltzen dituen produktua 10 euroan dago salgai Zumaian Kabi, Leize, Inpernupe eta Ihintza taber-netan. “Erantzun ona jaso dugu. Kontzertuan bertan berrogei-tik gora ale saldu ziren. Lehen kontzertutik jarraitzaile kopuru bat izan dugu. Gero, Baleike Egunean ere hiru bat kanta jo genituen eta entzuleak gehiagoren gogoarekin geratu ziren. Jendea adi-adi zegoen eta horri esker ondo ari da saltzen diskoa”, azaldu du Jonek.

Bateriaren *loop* batean gainean egindako gitarra eta tronboi grabazioak dira Big Boy taldearen hazia. (Iñigo): “Anaion zerbait zen hasieran. Gero, Iker eta Uhin sartu ziren, baita






Txipi ere, eta hala, gauza osatzen joan zen. Gero Aimar [Loinaz] sartu zen, baina bere taldearekin ere ari zen, Noxbleed-ekin, heavyagoa, eta bi taldeekin batera ezin zuela eta, utzi egin zuen. Beste gitarra jotzaile baten bila hasi ginen eta Petxa [Javier Pecharroman] sartu zen. Harekin beste hiru hilabete egongo ginen, eta martxa hartzen ari ginenean, utzi egin zuen”. **(Jon):** “Hasiera zaila izan zen. Kanta guztiak, hamar bat, eginda zeuden, anaiak eta nik estudioan konposatutakoak. Denok juntatu ginenean kolpean hamar kanta entseatzan hastea bezala zen. Abestiak taldera ere moldatu behar izan ziren eta prozesua luze xamar joan zen. Aimarrekin kanta guztiak eginda genituenean, utzi egin zuen. Gero Petxa sartu zen eta hari kanta guztiak erakutsi behar izan genizkion. Baita moldatu ere bere jotzeko erara ere, hark bere estiloa duelako. Baina berak ere utzi egin zuen, eta berriro geldiunea izan zen. Eta hor sartu zen Harkaitz. Oso ondo akoplatu da, baxua ere jotzen du eta horrek aukera gehiago eman ditu”.

Ohikoa ez den instrumentazioa erabiltzen dute. Metalak, bonbardinoa eta tronboia, ez dira kolore puntu bat emateko euskarri soilak. Jotzen duten musiketik urruneko lekuetara eramaten dute entzulea: Estatu Batuetako eta Mexikoko desertuetatik Balkanetako ijitoen festa batera. Nola definitu estiloa? Ez da erraza. Prestatu duten prentsa oharrean hala diote: “Estilo aldetik zaila egiten zaigu definitzea... Iturri ezberdinetatik edaten dute abestiek. Agian egiten dugun musika istorio ezberdinen soinu banda bat bezala uler daiteke”. Baina nondik dator nahasketa hori? **(Iñigo):** “Jon eta biok hasi ginenean, berak gitarra jotzen zuen eta nik tronboi irristailuduna. Ahotsak sartzean, ikusi genuen bi metal behar genituela taldean. Koadrilan Iker genuen, eta konbentzitu genuen parte hartzeko. Jotzen dugun instrumentuekin musika hori ateratzen da. Gustatzen zaizkigun musikak ere badira eta taldekide batzuk Musika Bandan ibiltzeak badu bere eragina, metal aldetik, bereziki”. **(Jon):** “Metalak ez ditugu erabiltzen ska musikan bezala. Ez dira euskarri soilak; batzuetan printzipalak ere badira”. **(Iñigo):** “Kanta batzuetan abesten ez dugunez, instrumentalak direnez, melodiak instrumentuek eramaten dituzte”. **(Jon):** “Bere momentuan ez dut uste estilo aldetik ezer pentsatu genuenik, baina bagenekien ez genuela ezer tipikoa egin nahi. Hastapenean, estudioan, gitarra eta tronboiarekin zerbait ateratzen hasi ginen. Gogoratzen dut lehen kanta nola izan zen. Gainera, kanta hori kanpoan geratu da. *Loop* bat grabatu



Iñigo: “Bere momentuan ez dut uste estilo aldetik ezer pentsatu genuenik, baina bagenekien ez genuela ezer tipikoa egin nahi”



dira. Harkaitz baxuarekin ekarpenak egiten hasi da, Uhin bateriaren oinarria jartzen eta besteok gauzak probatzen. Lokalean sortutako gauzak dira. Anaiak eta biok sortutako kanta haiekiko alde sumatzen da hor”. **(Iñigo):** “Beste kantak ere aldatu dira. Instrumentu bakoitza sartu denean aldatzen joan dira, baita entseuetan ere”. **(Uhin):** “Zuek grabatutako kanta haiek desberdinak dira, konposatzeko era ere desberdina zelako. Guk gurera moldatu ditugu kanta horiek. Orain kantak sortzeko prozesua da desberdina”. **(Jon):** “Guk aukera genuen zerbait desberdina egiteko eta gauza polita ateratzeko. Lehen grabazio haietan, adibidez, zazpi tronboi zeuden. Gero errealitatera eramaten behar da eta jakin nork zer jotzen duen. Azken urte honetan eraldaketa bat izan da eta hori azken kantetan igartzen da. Pentsatzekoa da taldearen identitatea sortzen joan dela eta hor ikusten da nondik joango den”. **(Iñigo):** “Politena hori izango zen, denok batera sortzea. Azken kantak hala egin ziren”.

**Instrumentu horiek zuzeneko indartsua izatea ere baliatzen dute...**

**(Iñigo):** “Jotzen ditugun instrumentuek horretara eramaten dute. Indarra ematen diote. Agian jendea ez dago horretara ohituta...”. **(Uhin):** “Berrikuntza ere bada”. **(Jon):** “Agian, jendeak argazkiak ikusten baditu, pentsa lezake ska





**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

**Diselnu zerbitzuak**  
tel.: 943 14 31 22

**Kopiak eta materiala**  
tel./Faxa: 943 14 31 20  
www.a3zumaia.com  
a3@a3zumaia.com

a3 kopia eta diselnu zerbitzuak



**LIBRURU DENDA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

Egin zaitez **BALEIKE**ko bazkide




**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261

Egin zaitez **BALEIKE**ko bazkide

**ALGORRI**TABERNA

ERREINA KALEA, 3 - ZUMAIA



Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157 anaestokozapiek@telefonica.net

ILEA PAINDEGIA



Kantauri plaza, 6, behea tel. 943 117 406

**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Erakusketa: Hego kalea, 4-5  
Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

www.argisun.com  
info@argisun.com



**OKINDEGIA**  
Arrikupe

Naparra, 7 - tel. 943 501 501  
ZUMAIA

**OGI-EDER**



**ARRUTI**  
Baltasar Etxabe 2/0  
Zumaia 943016429



**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25  
20749 Arroa tel./faxa 943 148 306  
bakun@euskainet.net



**Basadi albaitaritzza**

Ribaitario  
Itxaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310  
www.marul@basadi.com  
www.basadi.com

Golez: 11-13 / Arrabalo: 16-19:30 / Astebetez goizean eta larunbatean buko  
Lamiakiderako: 605 728 737 Etxez etako zerbitzua



**BASUSTA**  
erretegia • asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943 86 20 73  
943 86 04 38  
20750 Zumala (Gipuzkoa) asadorbasusta@hotmail.com



**Braky's**  
Okindegia • Katedegia

Izaga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289

kontu bat egiten dugula. Estilo hori oso zabaldua dago hemen eta hasieran nahasmenera eramantzen zaitezke. Baina nahikoa da kanta bat entzutea ikusteko ez dugula zerikusirik”. **(Iñigo):** “Batzuek pentsatuko dute berbenako taldea garena. Kontzertu emateko jaso dugun eskaintza bakarra Lezoko Udaletik izan da. Mezu bat bidali ziguten lau talderi. Besteak zein ziren begiratu nuen eta bat trikitixa talde bat zen eta bestea berbenako orkestra antzekoa. Pentsatu nuen: ‘Ostias! Hauek nahastu egin dira!’”. [algarak] **(Jon):** “Erantzun genien: ‘Uste dugu berbenako talde batekin nahastu gaituzuela, baina gu prest gaude jotzeko’. Ez ziguten erantzun ere egin”. [algarak]

Kontzerturik eza da taldearen arantzetako bat. Sorreratik lauzpabost kontzertu besterik ez dituzte eman eta etorkizuna ere ez dute oso itxaropentsua sumatzen. Proposamen zailegia? Auskalo. Taldekide bakoitzak bere lanbidea ere badu eta horrek zaildu egiten du kontzertu asko eman ahal izatea. **(Jon):** “Oso zaila dago. Leku askotara idatzi dugu eta erantzun ere ez digute egin. Hemen kontaktuak dituen jendea ezagutu behar duzu, eta hala ere... Gure helburua ez da asteburuko jotzea. Gainera, ezinezkoa izango litzateke guretzat. Baina urtean hiruzpalau kontzertu ematea, eta, gainera, leku txukunetan jotzea izango litzateke onena. Baina gurea ez da entzule guztientzako moduko proposamena”. **(Uhin):** “Beste talde batekin bat etortzea ere oso zaila da”. **(Jon):** “Hori da bestea. Beste talde batekin hitz egin eta proposamen bateratu bat egitea. Baina zeinekin? Okurrizten zaidan bakarra Joseba Irazoki da. Garbi dago ez garelako 20 urteko gazteentzako moduko taldea”. **(Iñigo):** “Mari kaleko kontzertuan harritu ninduen entzuleen adinaren media nahiko altua zela. Gainera, zure garrasiekin...”. **(Jon):** “Garbi zegoen han zeuden batzuek bigarren kantarako alde egingo zutela. Bi marru egin, eta listo!”.


**Hori da zuen beste ezaugarrietako bat: abeslariaren garrasiak.**

**(Jon):** “Ez naiz ni melodiak egitekoa. Baina, hau ere, ez zen horrela hasi. Hasieran ez zegoen marrurik edo halakorik, baina entzuten hasi ginenean, zati batzuetan hori ateratzen

Jon: “Gure helburua ez da asteburuko jotzea. Baina urtean hiruzpalau kontzertu ematea, eta, gainera, leku txukunetan jotzea izango litzateke onena”

zitzaidan. Adunan, Asvinenean, eman genuen lehen kontzertuko eragina dela esango nuke. Subidoia eman zidan, jendea gustura ikusi nuen, eta uste dut hori hasi nintzela sartzen *Big boy* marruak. Beste hitz bat ez zait ondo aterako marrika, baina *Big boy* primeran ateratzen zait!” [barreak]. **Iñigo:** “Hor ere garbiketa bat egin behar izan genuen. Hainbeste *Big boy*...”.

Ustez errusiarrek pozoitu zuten Viktor Yushenko politikari ukrainarra, Michael Jackson abeslaria, Parisko hipodromo baten gainetik V formazioan hegan pasatzen diren gizakiak... Kultura popularra eta nazioarteko politika, ukitu kostunbristak eta poesia. Iñigo Garciaeren letrak ere ez dira euskal musikaren panoraman oso ohikoak. “*Eskutitzan* banuen ñoño xamarra izatearen beldurra, baina esan zidaten ez zela hala, eta...”. Esplizitua ez bada ere, disko osoak badu letretan halako lorura bat; kanta batek hurrengo baten aipamenak izan ditzake. **(Iñigo):** “Lehen kantan, *Agurran*, diskoko kanta guztiak buruz hitz egiten da. *Eskutitzan* hipodromo bat agertzen da, baita *Mr. Jackson*en ere. *Agurran* Errusia gerrara joan zela esaten da, eta *Gyroscope*-n ere horri buruz hitz egiten da. Kantak elkartu nahi genituen, baina zerbait kontzeptuala izan gabe edo istorio guztiak lotuta egon gabe. Viktor Yushenkorena, berriz, beti izan dut nonbaiten sartzeko gogoia. Egindako film laburretan ezin izan dut sartu eta kanta batean sartu dut. Krisi hura gertatu zenean zirrararen eragin zidan. Interneten begira, batzuek zioten bere burua pozoitu zuela hauteskundeak irabazteko”.





**BEDUA  
ITURGINTZA S.L**

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurigrunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

**EGOKI**



Erloju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



**BEHEKO  
PLAZA**

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943861700



www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097  
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet



**DIGITAL+**



V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

**ERTZ INFORMATIKA**



**Orange**

Portatilak eta mugikorrek konpontzeko zerbitzua  
Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395



**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA  
SANTXO AUZOA, 32  
20750 ZUMAIA  
TEL: 943860000  
943860612  
FAX: 943860977  
erota@erota-okindegia.com

**Galdona**



burdindegia

Mendatarra maiaina, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

**GANBARA**

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

**ZATOZTE**

zatozte.bakxiliudenda@gmail.com  
Juan Belmonte 4 behean 20750 Zumaiak

TV 943865263

Egin zaitetz  
**BALEIKEKO**  
bazkide



**GOIKO TABERNA**

Erribera, 9 tel. 943 861 391

Egin zaitetz  
**BALEIKEKO**  
bazkide



Ikastegi homologatua

**Goldan Gate**

Institute  
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, behean  
tel./faxa 943 865 020  
goldengateinsti@telefonica.net



**Kanta batean erlijio katolikoko erreferentziak ere badira. Asmo kritikoeekin egindakoa al da?**

**(Iñigo):** “Ez. Dena esango nuke instrumentuengatik dela. Kanta horretan organoa sartu genuen eta elizako ukitua ematen zion. Elizako esaldi hori txikitatik geratu zait. Ez nuen ulertzen. ‘Jauna ni ez naiz inor zu nire etxean sartzeko’. Nik ulertzen nuen: ‘Jauna ni ez naiz inor zure etxean sartzeko’. Atzetik gaixotasun baten inguruko zerbait dio eta ez nuen ezer ulertzen. Zer ari dira esaten? Behin meza bat erdaraz entzun nuen eta hor ulertu nuen”. **(Uhin):** “Sinetsi egin behar da, ez ulertu”. **(Iñigo):** “Bannuen beldur pixka bat halako zerbait bota eta jendeak ez zuela ulertuko. Baina badirudi ulertu dutela edo, behintzat, ez dutela gaizki hartu”. **(Jon):** “Agian jendeak txiste moduan hartzen du, eta hori arriskutsua izan daiteke, talde parodikoa bihurtzea. Baina, beno, lau puntu besterik ez daude errepertorio guztian”. **(Iñigo):** “Entseguetan beti gaitza txorakerietan. Berezkoa dugu. Baina beldurra badugu komikogia bihurtzekoa”.

Irudiei ere garrantzia handia ematen diote eta orain arte emandako kontzertuak proiektioekin indartu dituzte. 2013ko ekainean Alondegian eman zuten kontzertuan kanta bakoitzari egokitutako bideoa proiektatu zuten eskenatokiko atzealdean. Aurten, berri, DVDan jasotzen den dokumentala eman zuten. **(Jon):** “Hasieratik genuen proiektioak gehitzeko ideia. Kantak pixka bat nondik doazen azaltzen dute. Bideo batzuk eginda genituen, aukera hor zegoen eta baliabide guztiak aprobeixatu nahi genituen”. **(Iñigo):** “Ez dugu nahi euskarri soila izatea, bere garrantzia edukitzea nahi dugu. Batzuetan lotura izango badute ere, ez dugu nahi lotura hori oso esplizitua izatea. Adibidez, elefantearen kantan haren irudiak daude. *Gyroscope* kantan, berri, txikitak jolasten ginen jolas baten melodia sartzen dugu eta irudi horiek erakutsita ondo geratzen zela ikusi genuen”.

Zumaian uztailean egin bezala, etorkizuneko kontzer-


tuetan dokumentala erakusteko asmoa dute. “Bestela, ez da erraza dokumental bat erakustea. Hemen bagenuen gogoia ezagunen artean erakusteko”, dio abeslariak.

Musika taldeek ibilbide luzea burutu dutenean izaten dute DVD bat ateratzeko tentazioa. Beste kasu batzuetan, disko ezagun batek urteurrena betetzen duenean *Deluxe* edizioa argitaratzen da disko horren eta taldearen inguruko dokumentalekin. Big Boy ez da atzean geratu eta estreinako diskoa bada ere, erosleak DVDa ere eramatean du etxera. **(Iñigo):** “Hori zen lehen asmoa. Ez dakigu zer nolako ibilbidea izango dugun edo non jo ahal izango dugun. Ikusita, gainera, denbora honetan lau kontzertu besterik ez dugula eman, pentsatu genuen dokumental bat egiteak bere grazia zuela, gainera, talde hasiberria izanda. Hori, eta gero dokumental faltsua izatea. Horrek jokia ematen zuten”.

Taldeko sei kideak dira pelikulo protagonistak, tonu surrealista batean kontaktutako sasidokumentalean. Guda batean borrokatutako jendea (Harkaitzek tanke bat maneiatu zuten bataila erdian), tragediaz betetako ibilbidea pairatu behar izan dute. Hor dago Jonen heriotza, adibidez. Zorionez, denbora batera berpiztu zen eta taldea osatu ondoren, sekulako arrakasta izan zuten mundu mailan *Bigboy tango* abestiarekin. Izurdeak eta panekak bonbardinoaren doinuekin dantzan jarri ondoren, eta single hark izandako arrakastari esker, Yasser Arafaten aurrean jotzeko gai izan ziren. Arrakasta eta salmenta haiek, zoritxarrez, iraganeko kontuak dira, eta, irudietan jasotzen denez, nahikoa buruhauste badi-tuzte gaur egun.

“Abestien letrek eta bideoek badute elkarren artean erlaziorik eta istorio ireki ezberdinak kontaktzen dituzte. Gai horiek abiapuntutzat hartuz Big Boy taldearen historia (sorrera eta ibilbidea) kontatuko zuten sasidokumental bat egitea bururatu zitzaigun”, azaldu dute beren burua aurkezteko prestatutako idatzian. Ikus-entzunezko horretan erabiltzen duten umore absurdoak da ikuslea txunditu eta algarara eramatean duena. **(Iñigo):** “Tonu surrealista hori aurretik egindako film laburretan ere erabili dut. Dokumentala promozio bideoa

Iñigo: “Musikatik kanpo film laburra bere kabuz ikustea gustatuko litzaidake. Baina hori ez dakit lortuko dugun”.



bezala ikusten genuen hasieran, baina esperantza badut era independentean funtzionatuko duela. Musikatik kanpo, film laburra bere kabuz ikustea gustatuko litzaidake. Baina hori ez dakit lortuko dugun. Zumaian agian erantzun ona izan du ezagutzen gaituztelako, baina gustatuko litzaidake ikustea gu ezagunak ez garen lekuetan ere. Hasieran iraupen luzeagoa zuen, baina Txipik esan zidan luzeegia zela eta ez zuela inork agoantaruko. [barreak] Disgustu hori izanda, zerbait moztu nuen... baina moztutako zatia DVDaren estratan daude".

**(Jon):** "Diskoak eta dokumentalak urtebeteko lana eskatu dute. Amorrua ematen zuen gauzak kanpoan uzteak, kristoren lana egin zen eta".

**(Uhin):** "Gidoia egunero idazten joaten zen. Gu grabatzen geundenean Iñigo kanpoan geratzen zen idazten".

**(Jon):** "Uhin eta biok grabatzen egoten ginen eta amaieran

Jon: "Hasiera batean pelikularen asmoa ez zen hain handia. Baina gero kalitatezko zerbait lortzeko egin genuen lan"

Iñigo sartzen zen kamerarekin Uhinaren hartualdiak grabatzera".

**(Iñigo):** "Ideiak bai, baina irudi haiek ez nituen erabili. Gidoi osoa idatzi nuenean Txipiri pasa nion eta hark esan zuen, 'Ostias! Goazen ondo grabatzera'".

**(Jon):** "Hasiera bateko asmoa ez zen hain handia. Baina gero kalitatezko zerbait lortzeko egin genuen lan. Dena ondo grabatu behar izatea ekarri zuen horrek".

**(Iñigo):** "Erakutsi genuenean jendeak barre egin zuen, baita Harkaitzen irudiekin ere, eta Harkaitz ez dut uste hemen asko ezagutzen dutenik".

**(Jon):** "Izarra, baina, Iker da. Kamerak maite du. Eta hori egindako film labur denetan ikusten da".

**(Iñigo):** "Txipik eta biok Berde, gure lehen film laburra grabatu genuenean, Iker zen eskalea, kristalak garbitzen zituen. Gutxi agertzen zen, baina Albertok [Alberto J. Gorritiberea] ikusi zuen eta harrিতa geratu zen zeukan begiratuarekin".

## BIZITZA IRUDIETAN

*Big Boy taldearen eta bere partaideen 'bizitza' kontatzen da umore surrealista blai egindako sasidokumentalean.*



## Zirkoko zerrautsak elefantearen oinazpian

Estatubatuarrek Bigarren Mundu Gerraren amaieran Hiroshimara botatako bonba atomikoak *Little Boy* izena zuen. *Big Boy*, berriz, Thailandian jaio eta Estatu Batuetan hil zen elefantea izan zen. Taldeak izen bat behar eta animalia horren izena hartzea erabaki zuen seikoteak. “Behin elefanteen bideo batzuk ikusten ari nintzen Youtuben eta justu garai hartan taldeari izena jarri behar genion. Big Boy izena jartzea bururatu zitzaidan eta denei ondo iruditu zitzaien”, du gogoan Iñigok. Anekdotak izan zitekeena, pasio bihurtu zen. **(Iker):** “Elefanteekin obsesioa izan du betidanik! Film laburretan, kantetan, guztietan sartu behar du elefante bat. Elefanteak, edo amarrak!”. **(Uhin):** “Amarrekin zerbaitegin beharko dugu hurrengo diskoan. Andarikak!”. Umoreari ezin atek lagun talde honek.

Bilaketa horretan aurkikuntza bat baino gehiago izan zirela dio Iñigok. “Iaz, oportetara joan aurretik, dokumentala egiteko, Big Boy terminoa sartu nuen Interneteko bilatzailean, zerbaite aurkitzeko. Orri batean elefanteen inguruko artxibo bat agertzen zen, eta han azaltzen zen Big Boy. Noiz jaio zen, noiz hil, hasieran beste izen bat zuela, Louie... Informazio pila bat zegoen. Bere hezitzailea izan zenaren izena eta bloga ere han zegoen. Zirkoko materialaren bilduma duen mexikar baten izena ere agertzen zen. Egun batean idatzi nien eta segituan jaso nuen erantzuna. Hala jakin nuen nola ekarri zuten Thailandiatik, zein izan zen bere lehen hezitzailea...”. **(Jon):** “Oporretan nengoen egun batean deitu zidan: ‘Jon, bere entrenatzailearekin kontaktuan jarri naizela!’”. **(Iñigo):** “Oso hunkituta nengoen. Txorakeria dirudi, baina behin izen hori hartuta, bere hezitzailearekin hitz egin eta bere historia guztia jakitea handia izan zen. Esan zidan berak entrenatu zuela hasieran, baina pena zela bukaerara arte ez egin izana, oso elefante ona zelako.



Mexikarrak, berriz, bideo batzuk bidali zizkidan. Beste bide batetik elefantea Thailandiatik atera zuen tratantea ere ezagutu nuen. Elefanteak Estatu Batuetara nola eramaten zituen gauza pila bat nekien derrepente. Ikusten nuenagatik tratante hura mafioso hutsa zen. Washingtoneko zoologikora elefanteak ekartzen zituen, baina gero zirkoei saltzen zizkien. Orain gauzak asko aldatu egin dira eta zirkooan ibiltzeko elefanteak gatibutasunean jaioa izan behar du”. Estatu Batuetako eta Mexikoko zirkooetan ibili ondoren, zoologiko batean pasa zituen bere azken urteak Big Boyek, XXI. mendeko Zumaiako rock talde baten influentzia bihurtu aurretik. *Big Boy!*

**Beraz, urtebete inguru joan zaizue lan honetan, diskoak barne. Luze.**

**(Jon):** “Bai, beno, diskoa nire estudioan grabatu dugunez, beste martxa batean egin da. Batek lana zuela, besteak beste zerbaite, ni ere kanpoan egon naiz hilabete. Nahasketak ere lasai hartu nituen soinu ona izatea nahi nuelako. Berez, lehengo urteko udan hasi genituen grabazioak eta Gabonetarako amaituko genituen. Eta begira zenbat luzatu den”. **(Iñigo):** “Zumaiako kontzertuaren ondoren [2013ko ekainaren amaieran] berotu ginen eta haren ondoren hasi ginen grabatzen”. **(Jon):** “Dokumentala ere udan hasi ginen grabatzen. Oso martxa motelean joan da, baina aukera hori bagenuelako”.

**Autoedizioen kasuan disko laburrak izaten dira, lauzpabost kantakoak. Zuenak hamabi kanta ditu...**

**(Jon):** “Guri berdin zitzaigun bost kanta edo hamabost

kanta grabatu. Guk gure kanten disko bat atera nahi genuen, gustura geratu eta emaitza bezala geratzeko. Azkenean taldea mantentzea oso zaila da. Bakoitzak bere lanak ditu eta zaila zaigu elkartzea. Kontzertuetan gehiago elkartu gara denok entseguetan baino. Diskoa pixka bat guretzat ere bazen, guk egindako zerbaite edukitzeko. Kanten kopuru limiterik ere ez genuen. Ez genuen bost kantako *promo* bat egin behar gero zabaltzeko, ez dakigu eta promozioa egiten”.

**Kantarik geratu al zaizue kanpoan?**

**(Iñigo):** “Azkenekoa, eta *Prozesioa* ere ez dugu sartu. Ez genuen nahi tristeegia izatea”. **(Jon):** “*Prozesioa* bideo batekin jan daiteke, baina diskoan... Prozesio bat zeinek entzuten du etxean?”. **(Uhin):** “Niri batek esan dit martxa funebre bat ematen duela diskoak. Eta hori prozesiorik gabe!”. ■



# “ESTATU BATUETAN KASINOAK DIRA ZESTA PUNTAREN HELDULEKU BAKARRA”



Uda partean gero eta egonaldi laburragoa egiten dute Zumaian Ameriketako Estatu Batuetan (AEB) lan egiten duten herriko puntistek. Abuztu hasieran bildu genituen Iñaki Osa Goikoetxea, Imanol Lopez eta Beñat Flores, berriro Miamiako bidea hartu aurretik, hango eta hemengo kontuez berriketan egiteko.

TESTUA: GORKA ZABALETA  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

ELKARRIZKETA





Mikel Manzisidor, Julen Lopez, Oier Iburguren, Cristian Saez eta Haritz Egaña. Zumaiaiko eskolan zesta puntan ikasten ari diren 32 gaztetxoetako bost dira, 12-13 urte ingurukoak. Zumaiaiko eskolakoak, baina herritik kanpo entrenatu behar 2007ko neguan Odietaiko frontoia ia erabat eraitsi zutenetik. "Astelehenean Getarian entrenatzen dugu, asteartean ere bai, asteazkenean Donostian batzuk eta beste batzuk Getarian, ostegunean Aizarnazabalen eta Getarian, eta ostiralean eta larunbatean Getarian berriro", zehaztu du Aitzol Etxabek. Pilotela elkartearen barruan, bera da orain zesta puntako atalaren arduraduna, Luis Mari Etxaberi erreleboa hartuta. Getariako Sahatsaga pilotalekuko harmailetan daude Mikel, Julen, Oier, Cristian eta Haritzen gurasoak: "Partidez gain entrenamenduak ere herritik kanpo egin behar izateak sekulako ahalegina eskatzen digu. Askok zesta punta utzi egin dute, Zumaian frontoia egiten bukatzen dutenean bueltatzeko asmoarekin".

Hasi da entrenamendu saioa. Hotsak frontoia betetzen du pilotak frontisa kolpatzen duen aldiro. Boskoteak adi-adi jarraitzen du pilotaren norabidea, baina gaur begi bat frontoia-aren sarreran dute jarria. Badakite bisitari bereziak dauzkatela. Halako batean, atetik sartzen diren eguzki izpien kontra hiru silueta handi bistaratu dira. Iñaki Osa Goikoetxea, Imanol Lopez eta Beñat Flores dira. Ameriketako Estatu Batuetan zesta punta jokalarik profesionalak dira hirurak, Goiko eta Lopez munduko onenak aspaldiko urteetan. Pilota hotsa ozenago entzuten da orain. Hiru idoloen begiradapean, pilotak beste abaila bat hartu du.

Imanol Lopez: "Gaur egungo gaztetxoentzat gu zaharrak gara, beste belaunaldi batekoak. Katea eten egin da"

Tentsio unea hausteko, Beñat, Iñaki eta Imanol sarea- ren bestaldera pasa, kantxan sartu eta haurrak kiniela eran jokatzen jarri dituzte. "Tanto bakarrera eta txandaka", agindu diete. Haurrek pozik hartu dute proposamena. Ikaragarria da beraientzat Goiko, Lopez edo Beñaten aholkuak jasotzea. Tanto sorta polita jokatuta, bukatu dute saioa. Harmailetik guraso batek egin du oihu: "Ez joan haurrei kaskoa sinatu gabe!".

Errotulagailuak ere prest dauzkate. Aurpegian irribarre handi bana marratzu zaie haurrei.

Getariatik buelta Zumaia- ra. Otezuriko kafetegia adostu dugu berrikerarako Iñaki Osa Goikoetxea, Imanol Lopez eta Beñat Floresekin. Propio aukeratu dute, pilotaleku berriaren lanak ikusi nahi dituzte eta. Kotxea aparkatu bezain pronto, lan eremua inguratzen duen hesia- ren gainetik behatzen hasi dira hirurak. "Hormak badoaz gora!" diote ia sinesgaitz. Uda gehiegi AEBetatik bueltatu eta agindu- tako frontoia-aren arrastorik ikusi gabe. Obrarako sarrera zabalik

dago eta sartu egin nahi dute. Berehala atera dituzte telefo- no mugikorrek eta argazkiak ateratzen hasi dira. Arduradu- nari baimena eskatu eta bost minutu utzi dizkigu argazkiak egiteko. Handik kafetegira. Kanpoko mahai baten bueltan hasi da berrikeraldia. Makina hotsak datoz pilotalekuaren obretatik.

**Getariarik gatoz, Zumaiaiko eskolako haurrek han en- trenatzen direlako. Zuek ez zenuten halako arazorik izan. Odieta ikasi zenuten zesta puntan.**

Iñaki: Bai, guk Odieta ikasi genuen zesta puntan. Oso pilotaleku ona zen ikasteko, neurritz egokia haur batentzat.



PEIO ROMATET

## UDA EUSKAL HERRIAN

Gero eta denboraldi laburragoa egiten dute puntista profesionalek Euskal Herrian. Aurten hilabete eskas egin dute Iñaki Osa Goikoetxeak eta Imanol Lopezek. Argazkian, Gernikan jokatu zuten partidari.



Gero, astean behin, Donostiara joaten ginen, frontoi luzean entrenatzera.

Imanol: Bai, Baldan; eta Orion ere bai.

Beñat: Gure ondorengoak Berriatura ere joan izan dira frontoi luzean entrenatzera. Baina bestela, egunerokoa, Odietan.

**Zuek zesta puntako eskolan hasi zinetenean nola ziren gauzak?**

Imanol: Oso ezberdinak. Zesta puntan ibilbide profesionala egiteko askoz aukera gehiago zegoen, Ameriketako Estatu Batuetan ere bai. Txikia nintzenean nik ez nekien zer zen zesta punta. Zumaiaiko Eskolan ikasi nuen, eta pixkanaka ezagutu nituen orduan erreferentziako pilotariak zirenak: 'Txikito' Bolibar, Aranburu, Retozala, Remen... Horiek guztiak telebistari esker ezagutu nituen. Oraingo umeentzat ez dago erreferentziarik telebistan. Guk urte osoa AEBetan egiten dugu eta hilabete bat etortzen gara hona. Ez dago erreferentziarik gaztetxoentzat. Garaiak ezberdinak dira.

Iñaki: Lehen partida gehiago ematen ziren telebistaz eta horrek asko laguntzen du. Ume zarenean horrek asko markatzen zaitu, dena interes handiarekin jarraitzen duzu, nola jokatzaren duten, zer esaten duten Gaur hori ez dago eta kaltegarria da oso. Onena litzateke zesta puntako jokalaririk onenak Euskal Herrian egotea, hemen jokatzera eta segimendu egokia izatea telebistan. Baina, hala ere, oraindik Zumaiaiko zesta puntako eskola bizirik dago eta badirudi behingoz frontoia egingo dela eta horrek asko arinduko die azken urteetako martxa. Ez da bidezkoa Getariara joan behar izatea entrenatzera, umeak eta gurasoak atzera eta aurrera ibili behar izatea. Horrela jendea nazkatu egiten da eta utzi egiten du.

**Baina zer zeukan zuen belaunaldiak hainbeste jokalaririk eta hain onak ateratzeko?**

Imanol: Gaur egungoek ez daukaten zerbait, eta oso garrantzitsua: erreferentziak oso gertu geneuzkan. Iñaki, Enbil eta besteak oso hurbilekoak ziren guretzat. Oso gertutik jarraitzen genituen. Hemen pasatzen zuten uda osoa, entrenamenduak egiten genituen elkarrekin noizean behin. Adinez ez zegoen alde handirik gure artean, eta harreman hori naturalagoa zen, errazagoa. Zuk ikusten baduzu zu baino lauzpabost urte zaharragoak direnak Ameriketara daudela bizimodua au-

rrera ateratzen, normala da zuk ere aukera hori posible ikustea eta gogo hori piztea. Baina kate hori eten egin da. Gaur egungo gaztetxoentzat gu zaharrak gara, beste belaunaldi batetakoak gara. Lotura hori galdu egin da. Gaur egungo gaztetxoek, 10-11 urterekin, oraindik zortzi edo bederatzirenteko bidea dute aurretik profesionaltasunaren aukera planteatzen hasterako. Oso zaila da grinari eustea bestelako motibaziorik gabe. Guk ere lan berbera egin behar izan genuen, baina bagenekien saiatuz gero aukera hori eskura geneukala, gure aurrekoak ikusten genituelako.

**Nola gogoratzen duzue etxetik alde egin eta bide profesionalen probatzea erabaki zenuen garaia?**

Iñaki: Ni 16 urterekin joan nintzen etxetik, 1996an. Proposamena jaso nuen eta astebeteko epean Milanen nengoan. Sei hilabeteko eskaintza egin zidaten, probatzeko. Milangoa bukatu zenean, Ameriketara joateko aukera sortu zen eta dagoeneko 18 urte daramatzat han, aurrena Newporten, gero Orlandon eta 2002tik Miamin.

Imanol: Ni 2003an hasi nintzen profesioletan jokatzeko, Euskal Herrian, uda partean Iñaki eta besteak Ameriketatik etortzen zirenean. 2004an, ikasketak bukatu nituenean, harantz joan nintzen. Danian bi urte egin nituen eta azken zortziak Miamin.

Beñat: Ni 2006an joan nintzen, Fort Piercera, Miamitik ordu erdira. Han hiru hilabete probatu nituen eta gero aukera eman zidaten Miamin jokatzeko, eta han jarraitzen dut.

**Eta zuek joan zinetenetik gaur egunera, AEBetan asko aldatu al da zesta puntaren egoera?**

Iñaki: Bai, han ere sekulako beharakada izan du. Lehen frontoi gehiago zeuden, aukera askoz gehiago. Orain urte osoan irekita bi bakarrik daude, Miami eta Dania. Oso zaila da bertan jokatzeko leku bat lortzea.

**Eta nola dago antolatuta zesta punta Estatu Batuetan? Kasinoei oso lotuta dago, ezta?**

Imanol: Floridan, legez, tribu amerikarrek dute kasinoak zabaltzeko eskubidea. Gainontzekoentzat, kasino bat zabaltzeko lizentzia lortzeko bide bakarra da txakur edo zaldi lasterketak antolatzea, edo zesta puntako frontoi bat edukitzea. Horrela dago legea. Kasinoa martxan mantentzeko frontoia ere martxan izan behar duzu. Horixe da, gaur egun, zesta



Iñaki Osa: "Hemen ez bada aurrera ateratzen Federazioaren proiektua ez dago etorkizunik"

**Cure-Txokoa**  
aberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumaiá  
Tel.: 943 86 09 70

English School  
**Harvest**

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera  
[www.academiaharvest.com](http://www.academiaharvest.com)

San Jose, 11 bisá tel. 943 143 334

API  
**Ibaigain**  
inmobiliaria

Txomin Agiré 4, beheá  
elena@ricardoazcue.com  
tel. 615 793 406 / 943 862 651  
fax: 943 862 748

[www.ibaigain.com](http://www.ibaigain.com)

**ilarzi**



Alai auzategia, 2  
Tel. 943 24 50 20

**INPERNUPE**  
**ELKARTEA**



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

**Iriondo**  
Optika

Kantauri plaza, 8. Zumaiá. Tel. 943 86 04 86  
Nagusia, 53. Azkoitia. Tel. 943 85 19 84

**IRUITZ**



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 860 760

**TXALAPARTA**  
OPAKIAK

Angelin Soratu, 2  
20750 ZUMAIÁ  
(Gipuzkoa)  
tel. 943 143 689  
fax: 943 430 637

**Itzurun, S.L.**  
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armarin enpokatutak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 beheá  
Tel. / Fax: 943 86 15 65

**ORRAZTEGI**  
ZUMAIÁ



943 862 083

**JUARISTI**  
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua


Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

Egin zaitetz  
**BALEIKEKO**  
bazkide



**KABI** Pakete Etxezarrabi, 16  
943 117 427

TABERNA



**Kaithermik S.L.**



**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZH-rekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

Upela plaza, 8  
tel. 943 862 517



**kalari**

**PAPER** diseinu grafikoa

Roberto Gutierrez  
696 211 111 • [rgutierrez@rgutierrez.org](mailto:rgutierrez@rgutierrez.org) • [www.rgutierrez.org](http://www.rgutierrez.org)

**Kresala**  
Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869

puntak daukan helduleku bakarra. Kasinoek zesta punta behar dute negozioa zabalik mantentzeko. Baina enpresaren diru iturria kasinoa da, ez zesta punta.

**Beraz, zesta puntaren etorkizuna, AEBetan, erabat kasinoei lotuta dago. Hori ez al da arriskutsua?**

Beñat: Alde onak eta txarrak ditu.

Iñaki: Pena da kasinoei esker mantendu behar izatea, horrek esan nahi duelako zesta punta gaizki dagoela. Baina ona da, helduleku hori geratzen zaiolako, behintzat.

**Baina jendea zertara joaten da frontoira, partidak ikustera ala dirua jokatzera?**

Imanol: Ikusleak normalean igandean joaten dira frontoira, baina dirua jokatzera. Haiek ez doaz ikuskizunaz gozatzen. Irabazi edo galdu, apustu azkarrak nahi dituzte eta horrek jokatzeko sistema erabat baldintzatzen du.

**Eta nola egituratzen da denboraldia? Txapelketka al daude?**

Beñat: Bi denboraldi daude, negukoa eta udakoa.

Imanol: Astean sei egunetan jokutzen dugu. Gure egun libre larunbata da. Arduradun bat daukagu eta berak osatzen du gure egutegia. Egunean bost edo sei kiniela jokutzen ditugu. Tanto bakarrera jokutzen da, txandaka, galtzen duena kalera eta beste bat sartzen da. Horrela jokutzen da sei hila-betez. Amaieran, sasoiko sariak ematen dira: kiniela gehien nork irabazi duen, aurrelari onena, atzelari onena... Denboraldi osoa 36 pilotarirekin osatzen da Miamin. Aparte, Citrus txapelketa jokutzen da. Frontoi bakoitzetik bi bikote onenek hartzen dute parte.

**Zuen eguneroko bizimodua nolakoa da?**

Iñaki: Ni Miamin bizi naiz, familiarekin, etxe propioa daukat. Imanol eta biok frontoira 13:30etik 17:00ak arte joaten gara kinielak jokatzera.

Beñat: Nik 11:30etik 14:30era dauzkat kinielak.

**Beraz, egunean bizpahiru orduz jokutzen duzue. Eta gainontzeko orduetan zer egiten duzue? Elkartzen al zarete?**

Iñaki: Familiarekin egon, ikasi

Imanol: Miami oso hiri handia eta zabala da, eta bakoitzak bere bizimodua darama. Iñaki bizi den lekutik 25 minutura bizi naiz, kotxez eta trafikorik ez dagoenean. Beñatengandik hamar bat minutura. Baina sarri elkartzea ez da hain erraza, planak egitea osoa zaila da. Iñakik gainera familia dauka. Beñatekin agian errazagoa da, biok ezkondu gabe gaude eta beste askatasun bat daukagu. Noizean behin elkartzen gara afaltzera joateko edo

Iñaki: Frontoian ikusten gara egunero.

**Zenbat zumaia zaudete gaur egun AEBetako frontoietan lanean?**

Imanol: Miamiko frontoian 36 pilotaritik bost gara zumaia: gu hirurok, Iñakiren anaia Luis eta Unai Zinkunegi.

Eta Darian daude Gotzon Enbil eta Iñaki Urbieta. Zazpi guztira.

**Eta gehiago egon izan dira?**

Iñaki: Bai, bai. Igor anaia, Mugerza hiru anaiak, Unai Korta

Beñat: Filipinetan ere badaude batzuk

Imanol: Kontuan hartzeko datua da, gaur egun AEBetan dauden 72 pilotari profesioaletatik zazpi zumaia direla. Hamarretik bat. Azpimarratzekoa da. Eta, hasieran esaten genuenarekin erlazionatuta, uste dut lehen oso ondo egin zela lan eta horren emaitza dela. Asko erakutsi ziguten, ordu asko egin genituen Odietan eta pilotaleku egokia zen ikasteko, erraza. Oso gustura joaten ginen. Lagunak elkartzeko lekua zen.

**Euskal Herrira etorrita, ez da batere erraza zesta puntari segimendua egitea. Txapelketa nahasketa izugarria egon da azken urteotan.**

Iñaki: Zesta punta jarraitzen zaila da, hala da. Oraintxe enpresa batek antolatzen du Munduko Txapelketa, eta segidan beste enpresa batek berriro Munduko Txapelketa. Hamar eguneko tartean bi Munduko Txapelketa. Oso zaila da jarraitzailearentzat jakitea zer balio daukan txapelketa bakoitzak. Oso nahasia da.

**Eta zergatik dago hain gaizki antolatuta?**

Iñaki: Interes kontrajarriak daudelako eta ez dagoelako adostasunik.

Imanol: Orain Euskal Herrian dago enpresa pribatu bakarra, Jai Alive. Eta beste aldetik Federazioa dago, irabazi asmorik gabe, gauzak berriro ondo antolatu nahian. Pilotari batzuek enpresak antolatzen dituen txapelketetan hartzen dute parte, eta beste batzuek erabaki dugu Federazioaren proiektuaren aldeko apustua egitea. Baina ez dago denon arteko adostasunik. Iritzi ezberdinak daude.

Iñaki: Federazioaren egitasmoa berria da, eta zesta punta berrindartzea eta berrantolatzea ditu helburu. Datorren ur-







**Kuttun**  
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



**malaur**



**MAITE**  
ILEPAINDEGIA

Amaia plaza, 2 tel. 943 143 275



**Maluta**  
jatetxea + taberna

oilasko erreka • kaxuelitak • ogitartekoak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



**Nikol**  
taberna

amaia plaza 943561516



**NOIA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaia  
Tel.: 943 861 363  
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industriagunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

836 887 812 (Zumaia)  
809 834 438 (Itziar-Deba)  
www.carroceriasnoia.com

**MARGARI** fruta-denda

Tel. : 943 86 19 20  
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 891



**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

Egin zaitez  
**BALEIKE**ko  
bazkide



GERRAKO BOST  
DESAGERTU  
AURRITU DITUZTE

ETXEGINTZA



**OLIDEN**  
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156  
686 911 257  
oliden@olidenreformas.com

OLIDEN arkitek-tura

678 875 652  
943 143 093  
lor@olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA  
www.olidenreformas.com

Faxadik  
Telatutik  
Enebitatik  
(Zakalduak, barneak)  
Industria mantentzeak  
Fibraden dalaus eta abakurteak  
Mota guztietako getzerotzi lanak

Enebitzen inguruko teknikak (ITE)  
Zerbitzu energetikoak  
Fibraden dalaus eta abakurteak  
Enebitzen baina ibarretan  
Mota guztietako proiektuak



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranatz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbikirolak@euskalnet.net



**OSTOLAZA**  
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Jose Mari Kortia Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 66 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

**Ostolaza**  
Altzariak

Juli Beobide Ibilbidea, 1  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

**OTEZURI**  
KAFETEGIA

Gosariak  
Ogia  
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

terako zirkuitu bat antolatu nahi dute, urte osoan martxan egongo dena. Oso proiektu interesgarria da, batik bat, gazteentzat eta zesta puntaren etorkizunarentzat. Aurten lehen pausoak egin dira udan, torneo batzuk antolatu dira eta guk bide hori aukeratu dugu, uste dugulako merezi duela saiatzea.

**Eta, epe luzera, non dago zesta puntaren etorkizuna, Euskal Herrian edo Ameriketara?**

Iñaki: Oso beltz ikusten dut nik etorkizuna, alde guztietan. Hemen ez bada aurrera ateratzen Federazioa martxan jarri nahian dabilen proiektu berri hau, ez dago etorkizunik.

Imanol: Hori da aurrera begira gelditzen den aukera bakarra. Ez dut besterik ikusten. Miami sistema ere ez da batera erakargarria, ez pilotarientzat, ez ikusleentzat. Urtean 11 hila-betez beti kinielak jokatzen...

Kirol garrantzitsuetan txapelketak antolatzen dira, hiri nagusietan jokatzen da munduan zehar. Tenisean, adibidez. Hobe da hiri batean astebetetz edo bi astez jokatzea txapelketa on bat, eta hura amaitzean beste hiri batera joatea.

**Eta Mexikon? Han ere bada zaletasuna...**

Imanol: Han aukera handiak daude. Frontoiak badaude, baina noizean behin bakarrik erabiltzen dira. Baina txapelketa bat antolatzen denean jende mordo biltzen da.

Iñaki: Zesta punta gosea du han jendeak, asko gustatzen zaie. Nik bi aldiz jokatu dut han eta izugarria da giroa.

**Eta ez al da saiorik egin zesta punta Mexikora gehiago zabaltzeko?**

Imanol: Ari dira Mexikoko pilotalekua zabaltzeko ahalegine-tan, baina ez da erraza.

**Eta Filipinetan?**

Iñaki: Lau joan ziren eta bi gelditu dira. Beste biak bueltan etorri ziren. Ez dakit egoera nola dagoen han.

Beraz, hemendik kanpo Mexikon zabal daiteke bide bat, baina bestela Federazioaren esku egon dago etorkizuna.

Iñaki: Nik hala uste dut. Zestak ez du goizetik gauera sekulako indarra hartuko, baina gaur egun hasiberriak diren gazteentzat aterabide bat izango litzateke urte osoko plangintza bat egin eta torneoak antolatzea han eta hemen. Guretzat baino gehiago, gazteei begirako egitasmoa da eta guk hori bultzatuko dugu.

**Eta Zumaiako frontoi berriari zer erabilpen eman beharko litzaiok?**

Iñaki: Federazioaren proiektua aukera ona izan daiteke Zumaiako pilotaleku berriaren torneoak antolatzeko.

Imanol: Eta uste dut aprobetxatu behar dela gaur egungo pilotari onenak zumaiarrak direla Zumaiako pilotalekua erreferente bihurtzeko.

**Frontoi berriari izena ere jarri beharko zaio. Ba al duzue proposamenik?**

Imanol: Izena jartzeko agian ez gara gu aproposenak, baina bai uste dut Manuel Mugertzak merezi duela aitortzaren bat Zumaiako herriaren partetik, zesta punta berak jarri zuelako martxan. Bera aitzindaria izan da. Ez nuke gaizki ikusiko bere izena jartzea. Berari esker gaude orain gu gauden lekuan.

Beñat: Neuk ere Mugertzaren izena jarriko nuke.

Iñaki: Eskola berak sortu zuen, bera izan zen lehen irakaslea. Sebastian Ulaziak jarraitu zuen ondoren.

Imanol: Gero Eustakio Adurriagarekin egin genituen urte asko eta hor segitzen du, gaztetxoekin lanean.

**Eta zuen bizitza plana zein da? Zesta punta amaitzen denean zer egingo duzue? Zumaiara buelta?**

Iñaki: Nik uste dut urte batzuk egingo ditudala han eta gero Zumaiara etorriko naizela.

Imanol: Ni han geldituko naiz. Gustuko lekua topatu dut. Hona etorriko naiz udan, baina bizimodua han egingo dut.

**Eta zer topatu duzu han?**

Imanol: Lasai bizi naiz. Klima oso atsegina da. Estatu Batuek nola funtzionatzen duten asko gustatzen zait.

**Eta ingelesa, ikasi al duzue?**

Iñaki: Ulertzeko eta pixka bat hitz egiteko adina bai. Miamin gaztelaniaz asko egiten da, lati-

noen eragin handia dago.

Imanol: Miamin kubatar aberatsek agintzen dute. Baina gero mundu osoko jendea dago.

**Eta Beñat, zuk zer egingo duzu?**

Beñat: Oraindik ez dut erabaki. Oraingoz jokatzen jarraituko dut eta aurrerago etorriko da etorri beharrekoa.

**Eta ikasteko aprobetxatu al duzue?**

Imanol: Hirurok ari gara. Iñaki kontabilitatea ari da ikasten, ni finantzak eta Beñat ingelesa. Urte eta erdi gelditzen zait amaitzeko.

Iñaki: Niri pare bat urte.

Imanol: Garbi dago egunen batean jokatzeari laga beharko diogula eta orduan beste zerbaitetan egin beharko dugula lan. Gure soldatak ez dira Ronaldo edo Messirenak. Erabakiak hartzeko unea iritsiko da. ■



Imanol Lopez: "Estatu Batuetan dauden 72 pilotari profesionaletatik zazpi zumaiarrak dira. Azpimarratzeko datua da"



**La Primavera**  
pizzeria

943 247 011

www.laprimaverapizzeria.com

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

Egin zaitetz  
**BALEIKEKO**  
bazkide

**SESMA**  
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206  
www.entrenadorpersonalesma.com  
josebasesma14@gmail.com

**Talajaia**  
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

**TALAI-PE**  
jateketa-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

**Trapaia**  
Taberna

Erribera kalea  
20750 ZUMAIIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

**TTAKUN TABERNA**

Izustarri, 3  
tel. 943 865 289

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukandook (Hodilloa)  
Salbitzak, oilaskoak...  
Garagardook dukeran

Ondertza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

Egin zaitetz  
**BALEIKEKO**  
bazkide

**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA

Aitziber Etxebarria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

**UPELA** PARABOTIKA  
BELARDENDA

- ✓ Sendagai naturalak.
- ✓ Osteopatia eta masajeak.
- ✓ Naturista, dietetika eta olikadura.

Upela plaza 9  
943 537 911  
upelabelardenda@hotmail.com

**Zalla**

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upela Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAJA

**ZUMAJA AUTOESKOLA**

E-mail: zumaiaautoeskola@euskalnet.net

BASADI 13  
20750 ZUMAJA  
Tel. 943861018 / Fax. 943018173

**Zumaia Hotela**  
Jatetxea  
Kafetegia

Alai suznetegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

**EuroTaller**  
ZUMAJA MOTOR S.L.

José Rey Alfaro  
Gerente

Santxo Auzoa, 22  
20750 ZUMAJA (Gipuzkoa)  
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161  
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

**EDU**  
ZUMAJA OPTIKA

**ESKERRIK ASKO**  
—  
**25 URTE ZUEKIN**

**%25**  
DESKONTUAK

25 urtez gure ondoan zaudelako.

Txomin Agirre 6, 20750  
T 943 143 057  
www.eduoptika.com





Bazkideentzako txartel berria hurrengo egunetan jasoko duzue etxean. Txartel berriarekin hamaika abantaila izango dituzue Zumaiako denda, taberna, jatetxe eta negoziotan. Hemen zerrrenda:

#### **Ertz informatika**

Ordenagailu eramangarria eta jokoak erostean %5eko deskontua. Ordenagailu eramangarrien konponketan %5eko deskontua.

#### **Tximista taberna**

Astearte eta asteazkenetan, inportazioko bi garagardo ordaindu eta hirugarrena doan.

#### **Juanjo harategia**

10 eurotik gorako lehen erosketarekin, ardo botila opari. Bazkide txartelaz gain, aldizkarian argitaratuko den kupoia erakutsi beharko da.

#### **Basusta Erreategia**

Astelehenetik ostiralera, kartako bazkariak %10 merkeago.

#### **Arruti arropadenda**

Irailean %10eko deskontua. Deskontu hau ezin zaie gainontzeko eskaintzei gehitu.

#### **Maiaur**

Irailean eskaintza bereziak Maiaur izozkietan.

#### **Iratxe Plazaola**

Sei hilabetez, asteazkenetan errebisioa eta aho eskubila doan. Bazkideak eta beraien bikote eta seme-alabek balia dezaketeko eskaintza, bakoitzak behin.

#### **Marina kafetegia**

Bost pizza erosita, seigarrena doan. Txartel bana jasoko da erositako ale bakoitzeko, eta bost osatutakoan, pizza baten truke aldatzeko aukera izango da.

#### **Agustin harategia**

Irailean, 25 eurotik gorako erosketa eginez gero, oliba olio botila opari. Aurrez sukaldatutako produktuetan 15 eurotik gorako erosketa egiten duenari, ardo botila bat.

#### **Zalla taberna**

Udazkenean, kafea euro batean.

#### **Egoki erlojudenda**

%10eko deskontua erlojuetan, eta urre edo zilarrezko bitxietan. Deskontu hau ezin zaie beste eskaintza batzuri gehitu.

#### **Nikol taberna**

Ostegunetan lehen garagardoa euro batean.

#### **Ana zapiak**

%5eko deskontua produktu guztietan.

#### **Basusta loredenda**

Azaroaren 3tik martxoaren 12ra, %10eko deskontua 25 eurotik gorako erosketa eginez

gero, hileta eta ezkontza zerbitzuak ezik.

#### **Kabi taberna**

Garagardo kafi 1,5 euroan.

#### **Juaristi jatetxea**

Afariarekin kafea doan; kafea hartzen ez duenak txupitosa aukeran.

#### **Trapaia taberna**

Igandetako bazkariarekin kafea opari.

#### **Ttakun taberna**

Ostegunetan kafea euro batean.

#### **Zatozte bakailudenda**

Astelehenetan %5eko deskontua txarkuteriko produktuetan.

#### **Ganbara taberna**

Garagardo kafi 1,5 euroan bazkideei.

#### **Inpernupe taberna**

Kafea euro batean bazkideei.

#### **Otezuri taberna**

Etxeo tartak %10eko deskontuarekin.

#### **Optika Zumaiak**

%10eko deskontua betaurreko eta eguzkitako betaurrekoetan.

#### **Ukendu parafarmazia**

Baleike txartelarekin %5eko deskontua erosketa guztietan. Ez da bateragarria izango beste deskontu txartelekin.

#### **Margari frutadenda**

Baleike txartelarekin %10eko deskontua urte osoan.

#### **Ekin elektrizitatea**

LED lanpara eta papertegiko materialetan %10eko deskontua.

#### **Iriondo optika**

Haurrengan ikasketa arazoak eta "begi alferra" ekiditeko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua doan.

#### **Endañeta elektrogailuak**

Urriaren 31ra arte, 1.000 euro arteko artikuluetan %5eko deskontua Baleike bazkide txartelarekin, eskaintza berezietan izan ezik.

#### **D'Ana ileapaindegia**

Ilea garbitzeko produktu ekologikoak eta alergiaren kontrakoak (kolorante eta osagai toxikorik gabeak) %15eko deskontuarekin.

#### **Upela belardenda**

15 eurotik gorako erosketa eginez gero, 150

gramo zereal opari (kinoa izan ezik). 30 eurotik gorako erosketetan, ezpainetarako margoa opari (aleak agortu arte).

#### **Maite ileapaindegia**

Depilazioak %10 merkeago. Hilean behin, bazkideen artean zozketa ilea garbitu eta orraztu debalde egiteko.

#### **Golden Gate Institute**

Matrikulazioan %20eko deskontua bazkideentzat.

#### **Ilargi taberna**

Kafeak euro batean.

#### **La Primavera Pizzeria**

Bazkideentzat etxera eramatea doan.

#### **Beheko Plaza jatetxea**

Igandetan pintxo doan.

#### **A3**

Artikulu guztietan %5eko deskontua.

#### **Talaie jatetxea**

Bi lagunentzako hiru mariskada bazkideen artean zozkatzeko.

#### **Talaia jatetxea**

Ostiraletan afariarekin kafea eta txupitosa doan.

#### **Artaza kanpin ekologikoa (Urbasa-Lizarrak)**

Baleike txartelarekin %10 merkeago.

#### **Iruitz ileapaindegia**

Asteartetik ostiralera, ilea keratinarekin hidratatzeko tratamendua %25 merkeago. Txanda aurrez hartu behar da.

#### **Ardantzabide altzariak**

Ispiluak %10 merkeago.

#### **Aizpurua liburudenda**

Haur eta helduentzako irakurketarako liburuak %5 merkeago.

#### **Oskarbi kirolendenda**

Arropan %5eko deskontua.

#### **Txalaparta**

Bazkide txartelarekin produktu guztiak %5 merkeago, merkealdian izan ezik.

#### **Kuttun**


2014ko abenduaren 31 arte, %5eko deskontua produktu guztietan. Ezingo zaio bestelako deskonturik gehitu.

#### **Kalari taberna**

Igandean afariak %10 merkeago.

# Olarro Eguna

Irailak 20



Ondo pasatu, PASATU GABE!

# Hartu PARTE!

Sustatu EUSKARA eta euskal KULTURA

Zaindu INGURUMENA

Gozatu festaz BERDINTASUNEAN



Orain Zumaiko merkataria sarean

50 €-ko baloa duen opari txartela lortu webgunean erosketa egiteagatik

\*Lehenengo 50 €-tik gorako 10 erosketentzat, opari-txartelak denda fisikoetan erabiltzeko dira. Pertsona batek opari txartela bakarria lor dezake.



zumartian



Online erosi eta denda jaso

[www.zumartian.com](http://www.zumartian.com)



# IRAILA-URRIA

## DEIALDIAK

### Urriak 10-12

Garagardo Festa Zumartianeko tabernetan

### Urriak 17-19

Asteburu mikologikoa

## ERAKUSKETAK

### Irailak 4-21 BI ARRI

Irailak 24-urriak 12  
PACO HERNANDEZ

## IRAILA

### 19, ostirala

18:30 Olarro Eguneko sukaldaritza erakustaldia

22:00 Odietan Kresala dantza ikuskizuna

### 20, larunbata

11. OLARRO EGUNA

27-29, ARTADIKO  
JAIK

## URRIA

### 3, ostirala

18:00 Oxford aretoan, Olarru

Sub elkartearen proiektzioa

22:00 Aita Marin antzerkia,

Vaivén taldearen Happy End

### 4, larunbata

17:00 XVIII. Zakila Bira

lasterketa

19:00 Komentuan kontzertua

Gli Appassionati eta San

Pedro Abesbatza

### 12, igandea

12:00 + 16:30 Aita Marin haur

antzerkia, Hiru txerri txoak

Glu Glu taldearen eskutik

### 16, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum: La

gran belleza

### 19, igandea

Ibilaldi neurtua

### 21, asteartea

17:30 Haur liburutegian

ipuin kontaketa: Aniztasuna,

bizipoza

### 24, ostirala

19:30 Forondan Gune

taldearen saioa: Elena

Andres, La Educación de la

Interioridad: devolver el Ser

al centro de la Educación

### 30, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum:

Her



## ZINE FORUM

Aita Mari zine aretoa, 22:00etan

### urriak 16

La gran belleza

### urriak 30

Her

### azaroak 13

Joven y bonita

### azaroak 27

Ida

### abenduak 11

Crónicas diplomáticas (Quai d'Orsay)



Etxez etxeko zerbitzua

Santiago duzoa, 18 TEL: 943 862611





Xabier **AZKUE IBARBIA**

## Turismo iturri

Doinua: "Mendian gora haritza"

1.

**E**zaguna da Algorri,  
harriz harri orriz orri  
jende ugari dago begira  
txoko polit horri  
Bihotzez ongi etorri  
hainbat erromes jatorri  
aurten ordea film bat izan da  
turisten iturri

2.

**M**aritxuren eskultura  
Sanjuaniturriko ura  
bisitarien egarriz dago  
zenbaiten kultura  
Argazki soil bat helmuga,  
abizen haien kontura  
Espainiako jende askoren  
ikur bihurtu da

3.

**Z**inemaren panoramak  
dekoratuen aztarnak  
aurten turistak erakartzeko  
dauzkagun imanak  
Arimak eta izanak  
iturrietan edanak  
gal ez daitezen oraindik ere  
baditugu lanak

4.

**U**dazkenak berehala  
ilunduko du postala  
Zumaia duen kolore hori  
hain da espeziala  
Iristen bada itzala  
arnastu sakon kresala  
eta San Telmok urte askoan  
anpara gaitzala





# BISITA GIDATUAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JAUREGIAN

Ezagutu jauregiaren historia eta aretoek gordetzen duten ondare artistikoa

Taldea osatu eta eskaera egin  
[info.gipuzkoa@gipuzkoa.net](mailto:info.gipuzkoa@gipuzkoa.net) helbidean



# GLENCOE

INGELES AKADEMIA

## 4 PERTSONAKO TALDE MURRIZTUAK



- Cambridgeko titulazio ofizialetarako prestakuntza (Ket, Pet, First, Advance).
- Eskola laguntza (DBH, Batxilergoa...).

2014-2015 IKASTURTERAKO MATRIKULAZIO EPEA IREKIA.

**matrikulazioa dohainik!**



ZUMAIA

Zunbilo kalea, 12 behea · T. 670 391 777



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Izurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

